

9. KOSTUAK

Kostu-egitura kontuan hartuta, bi negozio-eredu bereizten dira, kostuak minimizatzen saiatzen direnak eta kostuak baino kalitateari garrantzi handiagoa ematen diotenak.

Gure enpresa, bi eredu horien konbinaketa batean oinarrituko da. Batetik, kostuak ahalik eta txikienak izaten saiatuko gara, horretarako beharrezko azterketak eginez. Kostuak minimizatze prozesu horretan, oso garrantzitsua izan da lur-saila gurea izatea eta erakinetako bat jada eraikia egotea. Horrela, kostu finkoak txikiagoak dira. Bestalde, gure produktu eta zerbitzuek kalitate ona izatea ere funtsezkoa iruditzen zaigu, horrela bezeroek guregan izango duten irudia hobetuko delako eta bezero gehiago lortuko ditugulako.

Harremanen atalean azaldu bezala, hasiera batean sustapen-kanpainan asko inbertituko dugu eta hainbat beherapen eskainiko ditugu. Beraz, sustapen-kanpaina eta beste gastuei erreparatu, gure gastuak handiak izango dira. Horregatik, gure kostuak minimizatzen eta efizienteki aritzen saiatuko gara. Denbora pasatu ahala, bezero gehiago lortzean eta sarrera gehiago izatean, alegia, kalitateari prezioari baino garrantzia handiagoa emango diogu eta ez diogu hainbeste erreparatu kostuak minimizatzeari.

Kostuak minimizatzean hainbeste erreparatu beharrean, kalitateari garrantzia handiagoa ematen hasten garenean, hasiera batean irabaziak euki arte utzitako proiektuak jarriko ditu abian. Hau da, entrenatzeko pista. Horrela, kalitatean arreta jarrita, gure produktuak eta zerbitzuak desberdinduko ditugu eta horrekin, bezeroen leialtasuna lortzen saiatuko gara.

Gure negozioaren kasuan kostu aldakorra nahiko handia izango da. Denboran zehar behar ditugun janari eta medikamentu kopurua oso handia izan ohi delako. Nahiz eta aldiak egon zerbitzuen arabera. Kostu finkoak aldiz ez dira emandako zerbitzuen kopuruen arabera. Gure kasuan kostu finkoa egin beharreko eraikin txikia da.